

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktua eguzki izpiekin kargatzen den pila da. Hainbat bezero desberdin eduki ditzakegu.

Gure bezero nagusiak etxean gauza elektrikoak erabiltzen dituzten pertsonak dira. Pertsona hauek dirua aurreztu nahi dute, ez dituzte pila berriak erosi nahi, eta produktua oso erraza izatea nahi dute.

Beste bezero garrantzitsu batzuk kanpoan denbora asko egoten direnak dira, adibidez mendizaleak edo bidaiariak. Haien ezaugarriak: eguzkia aprobetxatu nahi dute, entxuferik gabe kargatu nahi dute eta produktua eramangarria izatea gustatzen zaie.

Gure bezeroak ingurumenaz arduratzen diren pertsonak ere izan daitezke. Haien ezaugarriak: kutsadura gutxiago sortzea, energia garbia erabiltzea eta jasangarritasuna zaintzea bilatzen dute.

Azkenik, denda txikiak eta teknologia dendak ere gure bezero izan daitezke, produktu berria, ekologikoa eta bezeroentzat erabilgarria eskaini nahi dutelako.